

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Iñigo Alli Gizarte Politiken kontseilari karguaz jabetu da

Barcina Lehendakariak "une zail" hauetan erantzukizun hori bere gain hartzeko erabakia eskertu du

Miércoles, 24 de octubre de 2012

Ekainetik Gizarte Politika eta Kontsumoko zuzendari nagusi zen Iñigo Alli [Nafarroako Gobernuaren Gizarte Politiken kontseilari](#) karguaz jabetu da Nafarroako jauregiko Tronu aretoan egindako ekitaldian, Yolanda Barcinaren Lehendakaritza buru zela. Ekitaldian Nafarroako Gobernuko kide guztiak izango dira eta, haiekin batera, Nafarroako Parlamentuko lehendakaria eta kontseilari berriaren familia eta senideak.



Alli kontseilaria bere karguaz jabetzen Barcina Lehendakariaren aurrean.

Barcina Lehendakariak Alli-ri eskerrak eman dizkio "une zail" hauetan erantzukizun hori bere gain hartzeko erabakiagatik Nafarroako interes orokorraren alde lan egiteko. Gainera, Gizarte Politika eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiaren buru egindako lana azpimarratu du, adieraziz behar gehien dutenen alde "indar handiz" lan egin duela.

Asteazken honetako, urriak 24, Nafarroako Aldizkari Ofizialak Iñigo Alli Martínez Gizarte Politiken kontseilari berri izendatzeko Barcina Lehendakariak sinatutako [foru-dekretuak](#) argitaratu ditu, bai eta [egungo titular Jesús Pejenauteren kargu-uztea ere, iragan igandean hark dimisioa eman ondoren](#).

Ekainean Gizarte Politika eta Kontsumoko zuzendari nagusi izendatu zuten Iñigo Alli-k karguari zin egin dio eta, jarraian, Barcina Lehendakariarekin eta Gobernua osatzen duten beste kontseilariarekin batera asteazkenetako ohiko bilkuran parte hartu du



Gobernu berriaren lehen bilkura Alli kontseilaria lehen planoan, ezker aldean ikus daitekeelarik.

Iñigo Alli, que en junio fue nombrado director general de Política Social y Consumo, ha jurado su cargo y, seguidamente, ha participado

junto a la Presidenta Barcina y los otros consejeros que integran su Gobierno en la sesión que con carácter ordinario tiene lugar los miércoles.

Iñigo Alli Martínez Iruñean jaio zen, 1973an. Biologia Zientzietan lizentziatuta dago, Nafarroako Unibertsitatean Merkataritza Kudeaketako Goi Ikastaroa egin zuen eta beste ikastaro bat Caja Navarrako Zuzendarien Eskolan. Morgan Stanley-n finantza-aholkulari izan ondoren, Caja Navarra-n hasi zen lanean, eta bertan egin zuen ibilbide profesional guztia hainbat postu betez: Vialogoen zuzendari, Enpresa Handien Diruzaintzako zuzendari eta Civican-en zuzendari. Gainera, irakasle da Europako Foroaren Lidergo Etikoaren ikasgaiari eta irakasle gonbidatua Nafarroako Unibertsitateko Bioetikako masterrean.

Galería de fotos



Barcina Lehendakaria, Gobernuko gainerako kideekin Alli kontseilaria karguaz jabetu ondoren.



Alli kontseilaria emaztearekin eta seme-alabekin.



Iñigo Alli kontseilaria.